

LAUGARREN GARAIA : LURRA ZAIN DEZAGUN!

1. saioa

Helburuak

Ahoz eta idatziz deskribatzen trebatzea

Ibilbidea:

Ikastalde osoa	Irakaslea: "Gai berri baten lantzen hasiko gara: "Lurra zain dezagun." 2. & 3. orrialdeetan den irudiari behatuko diozue eta haren zati batzuk deskribatuko dituzue. Deskribapenaren egiteko Atxikarauan den hiztegia erabil dezakezue." Ikasleei <i>Atxikarauaren</i> irakurtzeko denbora utziko zaie eta talde osoan deskribapenaren ezaugarriak oroitaraziko dira. <i>Fitxa: "1. Laborantzaren irudia"</i> Fitxa banatu eta, adibide bat talde osoan egin daiteke, azpimarratuz ikasleek deskribatu behar dutela, eta ez azaldu.
Bakarka	Ikasleek idatziz deskribatuko dute. <u>Oharra:</u> - Irakasleak segurtatuko du ikasleek deskribatzen dutena. - Lehenik, irakasleak ikasle batzuk lagun litzake ahoz deskribatzen. - Beharrez, taulan deskribapen batzuk jadanik idatziak izanen dira.
Binaka /launaka	Ikasleek binaka edo taldeka taula osatuko dute.
Ikastalde osoa	Irudia proiektatua izanen da. Deskribapenak talde osoan osatuko dira.
	
Ikastalde osoa	Saioaren bilana: "Zer ikasi duzue?" Ikasleek ikasi dutena beren gisan erranen dute. Irakasleak saioaren helburuekin bat heldu dela segurtatuko du.

2. saioa

Helburuak

Argibide mota desberdinen irakurtzea eta ulertzea

Argibideetan xehetasunak bilduz azalpen testuen idaztea

Aitzineko saioan ikasiaz oroitzea ISILTASUNEAN

Ikastalde	Irakaslea: "2. & 3. orrialdeetan den irudia deskribatuz, ezkerreko eta eskuineko parteak
-----------	---

osoa	<i>konparatuz, laborantza eredu desberdinak badirela ohartuko zarete. 4.-7. orrialdeetan diren argibideak isiltasunean irakurriko dituzue, xehetasun gehiagoren biltzeko. Ondotik, tratatuak diren gaiak zerrendatuko ditugu.”</i>
Bakarka	Ikasleek isiltasunean irakurriko dute.
Ikastalde osoa	Gaiak zerrendatuko dira. Adibidez: 1) Nolako pasaiak dira eta zergatik? 2) Lurra nolakoa da eta zergatik? (Higadura eta kutsadura - Ongailuak / ongarriak - Pestizidak /konposta / xixareak ...) 3) Zenbat eta zer lanpostu dira? 4) Janaria nola balioztatzen da (merkataritza, janariaren botatzea ...)? 5) Behi esnedunak nolakoak dira? Nolako bizia dute? Animaliak ongi ote dira? (espazioa, sendagailuak, bitaminak ...) 6) Zer landare ote dira? Landareak kalitatezkoak ote dira? (artoa, ogia, barazkiak, fruituak ..) 7) Bioaniztasuna babestua ote da? Animalia desberdinik ba ote da? Non? Nolakoak dira? Landare desberdinik ba ote da? 8) Zenbat ur kontsumitzen da eta uraren kalitatea babesten ote da? 9) Energia ekoizteko nola egiten dute? Zer energia ekoizten da, zenbat kontsumitzen da? (garraioak, energia mota ...) 10) Klima zaintzen ote da? Irakasleak gaiak banatuko dizkie ikasleei. <i>Irakaslea: “Binaka gai bati buruz azalpen testu bat idatziko duzue. Ondotik idatzi duzuen testua besteei irakurriko diezue. Bukatzeko, testu guztiak bilduko ditugu, laborantza industrialaren eta herrikoia eraginak azaltzeko. Hasi aitzin azalpen testuaren ezaugarriak oroitaraziko ditugu.”</i> Lehenik, ikasle bakoitzak entsegu kaieran idatz dezake zer dakien azalpen testuei buruz. Ondotik, ikastalde osoan ezaugarriak arbelean idatz daitezke eta bukatzeko <i>Atxikaraua</i> irakurri eta osa. Idatzizko ekoizpenen egiteko urratsak oroitaraziko dira eta elkarrekin planifikatuko (liburu honen ...or.).
Binaka	Ikasleek, binaka, testu azalpen labur bat idatziko dute hautu duten gaiari buruz. Irakasleak testu guztiak bilduko ditu, zuzenketa edo hobekuntza proposamenak idatzeko zirriborroetan.
Ikastalde osoa .	Saioaren bilana: “Zer ikasi duzue?” Ikasleek ikasi dutena beren gisan erranen dute. Irakasleak saioaren helburuekin bat heldu dela segurtatuko du.

3. saioa

Helburuak

Argibideetan xehetasunak bilduz azalpen testuen idaztea

Aitzineko saioan ikasiaz oroitzea ISILTASUNEAN					
Binaka	Ikasleek azalpen testuak zuzenduko eta osatuko dituzte.				
Ikastalde osoa	Ikasleek idatzi dituzten testuak irakurriko dizkiete ikaskideei. Bi afixa antola daitezke eta ikasleen testuak dagokien afixan kolatu, laborantza eredu bakoitzaren eragina hobeki ulertzeko.				
	<table><tr><th>Laborantza industrial</th><th>Laborantza herrikoa</th></tr><tr><td></td><td></td></tr></table>	Laborantza industrial	Laborantza herrikoa		
	Laborantza industrial	Laborantza herrikoa			
Bakarka	Ikastaldea bitan zatituko duzue. <i>Irakaslea: “Ikasleen erdiak laborantza industrial zer den azalduko du eta beste ikasleen erdiak laborantza herrikoa zer den. Lehenik bakarka idatziko duzue. Bukatu eta binaka izanen zarete eta bata besteari laborantza eredu baten eragina besteari azalduko dio.”</i> Ikasle bakoitzak laborantza industrialari buruz edo herrikoari buruz azalpen testu bat idatziko du.				
Binaka	Irakasleak bikoteak antolatuko ditu: laborantza industrialari buruz idatzi duen ikasle bat eta laborantza herrikoari buruz idatzi duen beste ikasle bat. Aldizka bata besteari irakurriko dio idatzi duen testua. <u>Oharra</u> Idatziz egiteko orde, ahozko azalpen testua lan liteke. Afixetan bilduak diren argibideetan oinarrituz, ikasle batek besteari laborantza eredu baten eragina azal liezaioke.				
Taldeka	Jokoa baliatuz, ikasleek ezagutzak barnera ditzakete.				
Ikastalde osoa .	Saioaren bilana: “Zer ikasi duzue?” Ikasleek ikasi dutena beren gisan erranen dute. Irakasleak saioaren helburuekin bat heldu dela segurtatuko du.				

Oharra:

- 1) Ikasleek, idatzizko ekoizpena bizpahiru saioz egin lezakete. Bestalde, irakasleak azalpen testuen ekoizpena barna lezake, denbora gehiago hartuz. Testu guztiak erakusketa moduan antola litezke, argazkiak gehituz.
- 2) Gai hori landuz, irakasleak zientzia saileko sekuentziak buru litzake. Haurrek hobeki uler dezaten, Euskal Herriko Laborantza Ganbararen laguntzarekin etxalde baten bisita antola daiteke.
<https://ehlgbai.org/>

4. saioa - Izar saltzailea – 4.-11. or.

Urraspide hau Eneko Bidegainen ustiapen pedagogikoan oinarritzen da. Urrunago joateko ustiapen hori irakur dezakezue.

Helburuak

Album baten orrialde bakoitzaren deskribatzea, egoeraren ulertzea eta lehenago edo ondotik zer gerta litekeen irudikatzea.
Pertsonaia nagusiaren pentsaketen ulertzea (Sentimentuak, sinesmenak eta xedea)

Ikastalde osoa 	Irakaslea: “Album bat elkarrekin irakurriko duzue: Izar saltzailea. Lehenik, testuinguruaren ezagutzeko, albumaren orrialde bikoitz bat zehazki deskribatuko duzue, adierazia den egoeraren ulertzeko. Ondotik, egoera horren aitzinetik eta ondotik zer gerta zitekeen marraztuko edo idatziko duzue.” Irakasleak, 18. & 19. orrialdeak proiektatuko ditu eta irudien deskribapena gidatuko. Arbelean 3 zutabeko taula bat eraiki dezake eta erdiko zutabean deskribapena idatz. <table><tr><td></td><td>Barnean, mutiko bat, Xubanek billeteak zenbatzen ditu. 3 kaiola badira. Kanpoan, 7 jende. Bat begiak hetsirik, eskuak berinan pausatuak. 3 pankarta badira. Batean, prezioak idatziak dira, gero eta handiagoak.</td><td></td></tr></table>		Barnean, mutiko bat, Xubanek billeteak zenbatzen ditu. 3 kaiola badira. Kanpoan, 7 jende. Bat begiak hetsirik, eskuak berinan pausatuak. 3 pankarta badira. Batean, prezioak idatziak dira, gero eta handiagoak.	
	Barnean, mutiko bat, Xubanek billeteak zenbatzen ditu. 3 kaiola badira. Kanpoan, 7 jende. Bat begiak hetsirik, eskuak berinan pausatuak. 3 pankarta badira. Batean, prezioak idatziak dira, gero eta handiagoak.			
Bakarka	Irudia ongi deskribatu eta, ikasle bakoitzak aitzineko eta ondoko egoera/gertakaria zer izan zitekeen marraztuko du eta legenda idatziko. <i>Fitxa: “5. Izar saltzailea: Igurikimen horizontearen eraikitzea.</i>			
Binaka	Ikasleek marrazkiak eta idatzi dituzten erranaldiak elkarri erakutsiko dizkiete, eta komentatuko.			
Ikastalde osoa	Arbelean den 3 zutabeko taula osa daiteke, haurren proposamenak idatziz. <table><tr><td>Izar apaingarriak saldu ditu. Urrezko izarra saldu ditu. ...</td><td>Barnean, mutiko bat, Xubanek billeteak zenbatzen ditu. 3 kaiola badira. Kanpoan, 7 jende. Bat begiak hetsirik, eskuak berinan pausatuak. 3 pankarta badira. Batean, prezioak idatziak dira, gero eta handiagoak.</td><td>Dendaren bitrina hautsiko dute. Herritar batzuk bilduko dira, ekintza bat plantan ezartzeko eta izarren biltzeko. ...</td></tr></table> Ikasleek beste ikasleen proposamenak gehi ditzakete bete zuten fitxan.	Izar apaingarriak saldu ditu. Urrezko izarra saldu ditu. ...	Barnean, mutiko bat, Xubanek billeteak zenbatzen ditu. 3 kaiola badira. Kanpoan, 7 jende. Bat begiak hetsirik, eskuak berinan pausatuak. 3 pankarta badira. Batean, prezioak idatziak dira, gero eta handiagoak.	Dendaren bitrina hautsiko dute. Herritar batzuk bilduko dira, ekintza bat plantan ezartzeko eta izarren biltzeko. ...
Izar apaingarriak saldu ditu. Urrezko izarra saldu ditu. ...	Barnean, mutiko bat, Xubanek billeteak zenbatzen ditu. 3 kaiola badira. Kanpoan, 7 jende. Bat begiak hetsirik, eskuak berinan pausatuak. 3 pankarta badira. Batean, prezioak idatziak dira, gero eta handiagoak.	Dendaren bitrina hautsiko dute. Herritar batzuk bilduko dira, ekintza bat plantan ezartzeko eta izarren biltzeko. ...		
Bakarka	Ikasleek 4.-11. orrialdeak irakurriko dituzte.			
Ikastalde osoa	Xubanen jokamolde aldaketa eztabaidatuko dute ikasleek.			
Bakarka	Ikasleek Xubanen pentsaketak idatziko dituzte bunbuiloetan. “Xubanek, zer sentitzen du? Zer sinesten du? Zer nahi luke?” <i>Fitxa: “6. Xubanen pentsaketak?”</i> Irakasleak ikasleen fitxak bilduko ditu hastapeneko egoera ulertu dutenez aztertzeko.			
Ikastalde osoa	Saioaren bilana: “Zer ikasi duzue?” Ikasleek ikasi dutena beren gisan erranen dute. Irakasleak saioaren helburuekin bat heldu dela segurtatuko du.			

5. saioa – 12.-19. or.

Helburuak

Ipuinaren lehen zatiari buruz *Irakurrikus* sortzea
 Ipuinaren gaiaren ulertzeko, testuko eta irudietako seinaleen biltzea

Aitzineko saioan ikasiaz oroitzea ISILTASUNEAN	
Ikastalde osoa	IRAKURRIKUS has daiteke. Irakasleak Xubanen 2 potreta afixatuko ditu eta bunbuiloak ere.

	Oharra Aitzineko saioko fitxak aztertuz, lehenik hastapeneko egoera ongi ulertua ez zuten ikasleei hitza emanen zaie. Edo irakasleak haiekin lehenik taldean, 4.-11. orrialdeak irakurriko eta komentatuko ditu.
Bakarka & ikastaldea 	Testuaren zatia banatuko zaie ikasleei: <i>“Izarrek argia piztu zioten Kito”</i>. <i>Fitxa: “7. “Merkataritza - Hiztegia”</i> Irakasleak 3 agindu, bat bestearen ondotik emanen ditu. Agindu bakoitzaren ondotik, ikasleek bakarka irakurriko dute eta arabera hitzak edo hitz multzoak albumean xerkatuko. Ondotik, irakasleak testua proiektatuko du eta ikastalde osoarekin aztertuko. 1. Merkataritzari buruzko hiztegia landuko da. Irakaslea: “Ipuin honen hastapenean Xubanek izarrek saldu nahi ditu eta sosa egin. Testuaren zati bat banatuko dizuet eta salmentari/merkataritzari doakion hiztegia gainmarkatuko duzue.” (Horiz den proposamena) Izarrek argia piztu zioten. Sakelak betetzeko bidea marraztu ziotela iruditu zitzaion. Izarrek saltzea otu zitzaion. Bakoitzak berea, bere logelan! Hura zen, hura, ametsa! Ospearen ataria! Xubanek gaitzeko negozio zabaldu zuen. Auzoan ez zen bertze solasgairik. Bakoitzak nahi zuen zegokion izarra, zeinek zoragarriagoa. Moda berriaren sorrera horrek dolarrak barra-barra ekarri zizkion. Eta apararekin, banku harraparien eskaintza erakargarriak. Laidak ere nahi zuen halako bat. ahizparena bezalakoa. Zorigaitzez, ahizpak ez zion berea utzi nahi, izarra hortzetako eskuila bezala baitzen, norberarena. Eltzeitsuko dirua eskuan, Laida Xubanen saltegira abiatu zen. Zegoen ederrena erosiko zukeen ... aitzineko erosleak ez balu aitzindu. Xubanek azken izarra saldu zuen. Ez zen gehiago bakar bat ere. Bukatu ziren. Kito. <u>Ikastalde osoan ohartarazteko</u> Ikasleek bakarka lan egin eta, testua kolektiboki aztertuko da merkataritzari buruzko hiztegia azpimarratzeko eta beharrez azaltzeko. 2. Bakarka Irakaslea: “Nolako merkataritza den erakusten duten hitzak beste kolore batez gainmarkatuko dituzue.” (urdinez dena). <u>Ikastalde osoan ohartarazteko</u> * Ameslaria merkataria gaiztoa bilakatu da ... Denena den zerbait, publikoa den zerbait Xubanek saldu nahi du, bakoitzak bat eros dezan nahi du... izar guztiak saldu arte! * “erre” soinua errepikatzen da, dirua soinu gogor hori eginez erdiesten da Moda berriaren sorrera horrek dolarrak barra-barra ekarri zizkion. Eta apararekin, banku harraparien eskaintza erakargarriak. 3. Bakarka Irakaslea: “Beste kolore batez Laidaren ahizparen jokamoldeari dagozkion hitzak gainmarkatuko dituzue.” (arrosez dena). <u>Ikastalde osoan ohartarazteko</u> Ahizpen artean harreman txarra sortzen da, bekaizkeria, batek duen izarra ez du

	ahizparekin partekatu nahi.
Bakarka edo binaka	Ikasleek ipuina hastapenetik irakurriko dute, 4. orrialdetik 19. arte. Irakaslea: “ Ipuina hastapenetik berrirakurriko duzue eta irudiei zehazki begiratuko. Irudietan merkataritzaren gaiari lotuak diren beste seinale batzuk bil itzazue.” Irakaslea ikasleen artean ibiliko da eta batzuk lagunduko ditu irudiaren aztertzen. - 8. & 9. orrialdetan (Financial times, Marketing liburua) - 13. orrialdean (iZar izena: iPhone, iPad-i keinu bat da, produktu baten modak zer sor dezakeen)
Ikastalde osoa	Eztabaidatuko da: “ Izarrak saltzea posible ote da?” Zuen ustez istorio horretan zergatik idazleak izarren salmenta hautatu ote du?” Ikasleen hipotesiak idatz daitezke afixa batean. <u>Idazlearen oharra</u> Izarrak metaforak dira. Idazleak, planetan den elementu eder bat hautatu du, sinbolo gisa. Zenbat gauza badira pribatizatu litezkeenak edo pribatizatu direnak? Zer ez litzateke saldu behar? Oxigenoa, ura... eta beste zer?
Ikastalde osoa .	Saioaren bilana: “Zer ikasi duzue?” Ikasleek ikasi dutena beren gisan erranen dute. Irakasleak saioaren helburuekin bat heldu dela segurtatuko du.

6. saioa – 20.-27. or.

Helburuak

Ipuinaren lehen zatiari buruz *Irakurrikus* osatzea
Testuko eta irudietako seinaleen biltzea ipuinaren ulertzeko

Aitzineko saioan ikasiaz oroitzea ISILTASUNEAN	
Bakarka	Isiltasunean berrirakurriko dute ipuinaren hastapena (19.orrialde arte)
Ikastalde osoa	IRAKURRIKUS osatuko da.
Bakarka	Ipuinaren segida ezagutarazteko 8. fitxa banatuko die irakasleak ikasleei. <i>Fitxa: “8. “Merkatu beltza – Lerroak ordenan eman”</i>
Binaka	Ikasleek binaka haien lana konparatuko dute eta irudietan zer agertzen ahalko den aipatuko dute.
Ikastalde osoa	Ikasleek 20.-27. orrialdeak irakurriko dituzte. Irakasleak irudiak proiektatzen ahalko ditu eta elkarrekin deskribatzen: - Giro tristea (iluntasuna, euria, landare gisa kaktus bat, bakartia, jendea gordeka ...). - Berritasun beharra. - Izarren jabe izatea ez da aski. Orduan, argia pizteko zer egin?



Ikastalde osoa	<i>IRAKURRIKUS</i> osatuko da. Adibide bat eman
Ikastalde osoa .	Saioaren bilana: “Zer ikasi duzue?” Ikasleek ikasi dutena beren gisan erranen dute. Irakasleak saioaren helburuekin bat heldu dela segurtatuko du.

7. saioa – 28.-35. or.

Helburuak

Ipuinaren *Irakurrikus* fitxaren osatzea
Zatiak elkarri josiz jarduera eginez ulermenaren sakontzea
Ipuinaren segidaren asmatzea eta lagunekin asmatu segida desberdinek kanorerik badutela segurtatzea

Aitzineko saioan ikasiaz oroitzea ISILTASUNEAN	
Bakarka	Ikasleek ipuinaren hastapena (27. orrialderaino) eta <i>IRAKURRIKUS</i> isiltasunean berrirakurriko dute.
Binaka	Ipuinaren hastapena elkarri kontatuko diote ikasleek.
Ikastalde osoa 	Zatiak elkarri josi jarduera eginez ipuinaren segida irakurriko da talde osoan. <i>Fitxa: “9. “Zatiak elkarri josiz”</i> Ikasleei galdeginen zaie 32. orrialdeko azken erranaldia (“ <i>Ez alferrik, gero eta lagun gehiago bildu baitzitzaizkien</i> ”) irakurtzea, kontatzea eta, hipotesien egitea: “ <i>Zuen ustez zer gerta liteke ondotik?</i> ” (17. diapositiba) Edo “ <i>Legearen ordezkariak oldartu ziren.</i> ” erranaldia irakurri ondotik.
Bakarka	Ikasleek ondotik gerta litekeena marraztuko eta idatziko dute.
Launaka	Ikasleek elkarri komentatuko dizkiote marrazkia eta legenda, eta kanorerik duenez eztabaidatuko.
Ikastalde osoa	“Zatiak elkar josiz” jarduera bukatuko duzue eta ondotik albuma irakur dezakete 35 orrialde arte. <i>IRAKURRIKUS</i> osatuko duzue.
Ikastalde osoa .	Saioaren bilana: “Zer ikasi duzue?” Ikasleek ikasi dutena beren gisan erranen dute. Irakasleak saioaren helburuekin bat heldu dela segurtatuko du.

8. saioa – 36.-47. or.

Helburuak

Ipuinaren *Irakurrikus* osatzea

Testuko eta irudietako seinaleen biltzea ipuinaren ulertzeko eta ulermen galderei erantzuteko

Aitzineko saioan ikasiaz oroitzea ISILTASUNEAN	
Bakarka	Ikasleek isiltasunean berrirakurriko dute ipuinaren hastapena (35. orrialderaino) <i>eta IRAKURRIKUS</i> ere bai.
Binaka	Ikasleek ipuinaren hastapena elkarri kontatuko diote.
Ikastalde osoa	Irakasleak ikasleei ipuin osoa irakur diezaieke.
Bakarka	Ikasleek galderei erantzunen diete. <i>Fitxa: "10. "Bakea itzuli ote da?"</i>
Ikastalde osoa	Saioaren bilana: "Zer ikasi duzue?" Ikasleek ikasi dutena beren gisan erranen dute. Irakasleak saioaren helburuekin bat heldu dela segurtatuko du.

9. saioa Ipuin osoa

Irakurrikus osatuko duzue eta hurrek binaka kontatuko.

Liburuan agertzen diren izar guztiak ordenan eman itzazu. Irudi bakoitza eta arabera erranaldia lot itzazu ipuinaren laburbiltzeko.

Irakurrikus, ulermenaren faboretan

Irakurrikus ikasleekin eraikitzen den idatzizko herexa da. Horri esker argibide esplizituen eta implizituen barneratzea eta antolamendua ikus daiteke.

Irakurrikus-en helburua da kontakizunen irudikapen kronologikoa gainditzea, irudikapen kausalaren eraikitzeak.

- Talde herexa horrek
- gogoan hartzen laguntzen du, ulermenaren faboretan
 - pertsonaien xedeen eta gertakarien arteko loturak antolatzen ditu
 - lotura logikoak gauzatzen ditu
 - afixa berean adierazten ditu istorioaren gertakarien egitura eta testuko "hutsuneak" bete behar dituen **irakurlearen ibilbidea**.

Ikasleak:	Irakasleak:
• Ulertuko du zer diren baitezpada gogoan atxiki behar dituenak kontakizunaren erranahia eraikitzeak. • Ulertuko du elementu horien arteko loturen egiteak lagunduko duela erranahiaren eraikitzen. • Ulertuko du argibideak nola barneratzen diren, eta kontakizuna aitzinatu arau nola berrantolatzen. • Eragiketa kognitibo konplexu horiek ikusiko ditu, horien herexa bat atxikiko du eta ezagutuko ditu (irakurle ibilbidea)	• Ikasleak lagundu behar ditu testuaren erranahiaren eraikitzen. • Ikasleak lagunduko ditu beren baitan irudikapena egin dezaten. • Galdeak egin behar ditu beharrezkoa denaz, eta eztabaida sortu. • Ulermen prozedurak ikusgarri egin behar ditu eta horiek esplizitatu.

Irakurrikus NOIZ EGIN?		
Istorio osoa irakurri eta		Testua zatika irakurri arau
Ikasleek ulertu dutena berreraikitzeak		Ulermenaren lantzeko, eta gertakarien herexa baten atxikitzeak
Testua aitzinetik irakurria izan da, eta talde osoan erabakitzen da memento garrantzitsuenak zer diren, zer atxiki behar den. Loturak marraztu behar dira elkarriketa egin arau.		Ikasleek testua zatika irakurtzen dute, eta haiek dute erabakitzen zer diren atxiki beharreko elementuak. Loturak marraztu behar dira irakurketa egin arau.

IRAKURRIKUS Nola antolatu?

1. urratsa - Jardueraren argitzea

Irakasleak jarduera zer den oroitaraziko du, eta ikasleei oroitaraziko die jadaneko egiten dakitena. Beharrez istorioaren hastapena eta pertsonaiak aurkeztuko ditu, eta ikasleak uzten ditu zer gerta litekeen irudikatzen.

Ikasleek beren burua irudikatuko dute jardueraren egiten, eginkizunak aitzinetik gogoetatuko dituzte, gogo irudikapenen egiten hasiko dira eta jakintzen mobilizatzen.

2. urratsa - Irakurketa eta "Irakurrikus"-aren eraikitzea



Irakasleak ipuina irakurtzen du, zatika edo osoki




Ikasleek:

- Gertakari garrantzitsuak zer diren erabakiko dute, justifikatuz.
- Zehaztuko dute pertsonaien ekintzen zergatiak zer diren
- Istorioaren elementuen arteko lotura kausalak aurkituko dituzte (irakurle ibilbidea).



Irakasleak galdeginen du:

- Zer den garrantzitsua, eta zergatik.,
- Pertsonaiek zergatik ekiten duten:
"Zer pentsatzen dute? Zer uste dute? Zer nahi dute?"
- Gertakarien zergatiak zer diren.



Irakasleak gauzatzen du eraikitzen ari den istorioaren ulertze prozesua.

Osagai guztiak ongi identifikatu behar dira: gogoeta, ekintza, eta egoera.

Irakurlearen ibilbidea (baina ez **istorioaren kronologia**) gezi gorritz gauzatua da.

3. urratsa - Memoria didaktikoa

Irakasleak segurtatuko du ikasleek istorioa ulertu dutela, eta galdekatuko ditu zer urraspide erabili duten istorioaren ulertzeko.

Ikasleek errepikatuko dute zer ulertu duten, esplikatu dute zer ikasi duten istorio baten ulertzeko, eta urraspide hori beste irakurketetan erabiltzeko proiektua martxan ezartzen.